



KATEBEGIA

Politikaren eta literaturaren (h)egian




Hasiera » (A)iruzkin literarioak » *Denbora bere lekura, hitza eginkizun*

ABU
08

Denbora bere lekura, hitza eginkizun

Atalak: (A)iruzkin literarioak



Nuria Bernardo Axpe, argazkilaria



Joseba Olalde argazkilaria zenak zabaldutako leihoa.

Denbora bere lekura

Gerardo Markuleta

Erein

Kontxa hondartzako baranda begietaratu dut liburua

eskuratutakoan (Nuria Bernardo Axpe). Poeta joan badoa denboraren tunelean, txakurra lagun.

MIKELASURMENDI

1958an jaioa. Zumarragarra eta urretxuarra, nahiz batzuentzat ezinezko bitasuna izan. **ARGIAko kazetaria**. Politika esparrutik literatura eremura doan jendarteko gaiak jorratzen ditut normalean, Hendaia munduaren epizentroa izaki.

Jarraitu @masurmendi
@masurmendi(r)en Txioak

Bilatu:

Bilatu

KATEGORIAK

Tunelean barrena abiatu naiz, eta aspaldi joan zen **Joseba Olalde** lankide argazkilariak zabalduko leihoan agertu zait Gerardo Markuletaren bisaia. **Serge Gainsbourg** heldu zait ere gogora, ke artean. Nola bestela?

Argazki albuma poema hartu diot poetari, liburuaren prefazio gisa hemen paratzeko, baita Joseba lagun adeitsuari eskaintzeko: "Bizi unea, unea oroitzeko. Oroit unek. Hala egin genuen, horixe dugu gaur".

I. Denbora bere lekura dugu I. atalaren izena. Sorlekura itzuli da poeta, ume izan zeneko lurraren izenek hartaratua. Pinudietako erretxin usaina aditu dugu berarekin, mutikoak neskengandik bereizten zituzten mojek *voyeur* jaidura areagotu ziotela aditu ere. Herriko kuarteleko ziegak gogoratu zaizkio poetari. *Kuartel ederrak* kuartelik gabeko gerra zabaldu zuen Santutegira bidean. Aitari hartu zion kearen harra, amaren izateko izanari karra. Ume nahiz nerabe garaiko munstroak uxatu ditu poemotan, orduko gau magikoen irrati uhinak oroit.

II. Ezkutuko tiradera. Poetak berbak erauzi ditu mesanotzeko tiraderatik. *Balak baleki, ez genituzke alferrikako eleak usatuko. "Eta" menderagailu barik, juntagailu litzateke. [Ez] Esan ezetz.* Antonio Machadoren erara eraikiko genuke bakea, elkarrentzako bidea. Lainopean ez ezik, hiztegian ere moroak baikara. Arab(i)an bagare.

III. Altzari japoniarra. Mesanotzeko poesia izan ezik, japoniar poesiaren maitale izaki, basozain ari zaigu *Bonsai-zainaren apaltasunez*. Iragan mendilerroetako bide luzeak lerro laburrean trazatu ditu. Bide emankorretako poemak. *Gald(u)erak* berri du, eta poeta eta kantari kuttunen berbak gutunak bilakarazi. Etsaiak adiskidetu nahi lituzke. Ostiral izan (nahi luke) Robinsonik gabe. Alabaina, Santutegia suntsitu ostean, iheslariantzako kanpamendua eraikitzeke oihalak eskuratu gura du poetak. Denbora nola, berez doa. Libre.

IV. Biok egur, biok su. *Maitasun kantu bat (Nuiriari eskainia)*. Gainsbourgek Jane Birkin nola, aditu gura nuke kantua: "Hitz bat nahikoa duzu -ez zin eta ez promesa- bihur gaitezen, printzesa. *Biok egur, biok su*". Denbora bere lekura helarazi du poetak. Arg(azk)iak itzalita, literaturaren usainez eta kiratsez, batzuetan. Gau minean, aski baitira *Hiru letratxo. (Hilartitz saioa)*.

Denbora eta espazioa aldagaiek mugarrizten dute errealitatea, gizabanakoa horien artean -ibilki- garela. Poetak berriz, jendartean banako partikularra izan gura du, izan behar. Berba

- ▶ (A) iruzkin literarioak
- ▶ (B) literatura
- ▶ (C) politika
- ▶ (D) kulturegintza
- ▶ (E) gizartea
- ▶ (H) endaiak
- ▶ Antzerkia
- ▶ Artea
- ▶ Azpiegiturak
- ▶ Bertsolaritza
- ▶ Dantza
- ▶ Ekonomia
- ▶ Energia
- ▶ Erlijioa
- ▶ Euskara
- ▶ Hedabideak
- ▶ Hezkuntza
- ▶ Historia
- ▶ Hizkuntzak
- ▶ Jaiak
- ▶ Kirola
- ▶ Musika
- ▶ Natura
- ▶ Nazioartea
- ▶ Osasuna
- ▶ Politika saioak
- ▶ Sailekugabeak

lanabes. Gerardo Markuleta berba lagun duzu oraingoan. Gasteiztar bilakatutako txantxikuak, hiritartutako herritarrak, bere *denbora bere lekura* eraman gura izan du azkeneko prestazio honekin. Ez du lantegi samurra hartu poetak, ez baita saio erraza iragan denbora lekutzea. Denbora bere lekuan ipintzea oroitzea da, eta errealitatea oroitzea ezinezko eginkizuna. Markuletak baina, duintasunez kitatu du –orainokoa– bizitakoaren zorra. Hitzak gordin, maitasun kanta baten legera. *Denbora bere lekura*, hitza eginkizun.



Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

*Izena **

*E-posta **

Webgunea

Iruzkina

▶ Zientzia eta teknologia

▶ Zinema

AZKEN BIDALKETAK

▶ Ez da sekula berant!

▶ Déjà vu edo zaharrak berri

▶ Back to back

▶ Denbora bere lekura, hitza eginkizun

▶ Koldo Izagirre, gizonezko (elipsia) bat

IRUZKIN BERRIAK

▶ Norastorgarlensiu(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren omenez) bidalketan

▶ Mikel Asurmendi(e)k Now!
Happy new year bidalketan

▶ patxi gaztelumendi(e)k Now!
Happy new year bidalketan

▶ Mikel Asurmendi(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren omenez) bidalketan

▶ Vicent Gil de Paules Balda(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren omenez) bidalketan

Ondorengo XHTML etiketa eta atributuak erabil ditzakezu: <abbr title="">
<acronym title=""> <blockquote cite=""> <cite> <code> <del datetime="">
<i> <q cite=""> <s> <strike>

Bidali >

ARGIAko Blogarien Komunitatea - CC-BY-SA